TOLOSAKO
UDALA

2020IGBA0010

GOBERNU BATZARRA

2020.03.18

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Begoña Tolosa Mendia
Xabier Balerdi Tolosa
Nerea Letamendia Belloso
Jose Mª Villanueva Telleria

Ez bertaratua:
Patxi Amantegi Zubiria

Jarduneko Idazkaria:
Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko martxoaren hemezortzian, 12:30ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. **2020ko martxoaren 10eko bilkurako akta onartzea.**
2. **Uzturre kaleko 10ean dagoen partzelaren jabeekin egingo den hitzarmen urbanistikoaren hasierako onespena, Uzturre kalearen berrantolaketaren eta hobekuntzaren ondoriozko lur-lagapenen oinarriak ezartzen dituena.**
3. **Onartzea Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obraren proiketua.**
4. **Gipuzkoako Ur-Kontsortzioarekin hitzarmena onartzea Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obrak egiteko.**
5. **Tolosako Uzturpe Frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko obren proiektua onartzea.**
6. **Tolosako udaleko barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioaren akats zuzenketa.**
7. **Dekretu hauen berri ematea:**

   - 2020/0525 dekretua: 2019/74; 2020/04 eta 2020/05 faktura

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

zerrendak.

8. **Dekretu hauen berri ematea: 2020ko otsailaren 21etik 27ra (2020/388-2020/411).**

1. 2020KO MARTXOAREN 10EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko martxoaren 10ean egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. UZTURRE KALEKO 10EAN DAGOEN PARTZELAREN JABEEKIN EGINGO DEN HITZARMEN URBANISTIKOAREN HASIERAKO ONESPENA, UZTURRE KALEAREN BERRANTOLAKETAREN ETA HOBEKUNTZAREN ONDORIOZKO LUR-LAGAPENEN OINARRIAK EZARTZEN DITUENA.

AURREKARIAK

2017ko uztailaren 18an, Igor Ellacuria Santosek obra baimena eskatu zuen Uzturre kalea 10ean kokatzen den partzelako familia bakarreko etxebizitza eraitsi eta berri bat eraikitzeko.

2017ko irailaren 15eko 1588/2017 zb.dun Alkate dekretuz obra baimena eman zitzaion Igor Ellacuria Santosi, baimenean ezarritako baldintza orokor eta partikularren baitan, horietan azpimarragarria suertatzen delarik laugarren baldintza partikularra:

> *4. Hitzarmen bat sinatzea Udala eta jabeen artean, "5.3 Uzturre kalea" azpiesparruarekin lotutako obrak egiteko behar diren lurrak dohain emateko. Adibide gisa hartuko da Uzturre 8ko jabeekin 2008 urtean egindako hitzarmena.*

Hitzarmenaren jatorria ulertzeko, Uzturre 8 kaleko jabeekin sinatutako 2008ko irailaren 30eko hitzarmena hartzen da erreferentziatzat. Aurreikusten da Uzturre kalea irekiko dela, dagozkion zerbitzuak jarriz bertan, egitekoa den urbanizazio proiektuak xedatutako baldintzetan. Urbanizazio kargak "5.2 Antzinako erruki-etxea" eta "5.3 Uzturre kalea" azpi-esparruei egozten zaizkie, baina posible da Uzturre kalearen urbanizazioak kale horretan kokatzen diren kontsolidatutako partzeletan eragina izatea; partzela horien lur sail batzuen lagapena behar izatea, alegia.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

Igor Ellacuria Santosek, obrak gauzatu ditu eta obra amaierako dokumentazioa ekarri du. Ondorioz, 2019ko abenduaren 13an, udal arkitektoak lehen okupaziorako baimena informatu du, adieraziz obra amaierako dokumentazioa ondo dagoela, baina aurrez aipatutako laugarren puntuko hitzarmena sinatzea falta dela.

Beraz, txosten honen helburua da hitzarmen urbanistikoa proposatu eta berau onartzeko prozedura informatzea.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Hitzarmen honek hirigintza-egikaritzeko hitzarmen izaera du, indarrean dagoen plangintza kudeatu eta egikaritzeko zehazpenak eta baldintzak finkatzea hain zuzen ere. Honela, Uzturre kalea urbanizatzen denerako Uzturre kalean kontsolidatutako partzelen lagapenen bat beharko balitz, hori ahalbidetuko dituen baldintzak adostea da hitzarmenaren xedea.

Aplikatu beharreko araubide juridikoa jasota dago, Estatuko Lurzoru Legearen -7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, urriaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenaren- 9.8, 25.1, 18.1-c) eta 61. artikuluetan eta 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren 7. xedapen gehigarrian.

2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 7. xedapen gehigarriaren baitan, toki entitateek hitzarmen urbanistikoak sina ditzakete pertsona publiko zein pribatuekin -jabe izan edo ez- hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrenean garatzeko.

Prozedurari dagokionean, udalari dagokio hitzarmenak onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hitzarmenaren testua osorik eta gutxienez hogei egunez jendaurreko informazioan egongo da alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Udal-antolamenduaren barruan, **Alkatetzari dagokio gai hori ebaztea**; 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 21. artikuluko 1. idatz-zatiko j) letrarekin bat etorriz, eta Alkatetzak 2019ko uztailaren 16an 2019/1228 zk.dun dekretuan eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu zion.

Jendaurrean jartzeko epea igaro eta behin betiko onarpena eman ondoren, aipatutako hitzarmena formalizatu ahal izango da, eta, horretarako, Tokiko Gobernu Batzarrak ahalmena eman behar dio Alkatetzari.

Azkenik, hirigintza-hitzarmenen erregistro eta artxibo administratiboan jasoko da hitzarmenaren behin betiko testua eta hari atxikitutako dokumentuen ale oso bat.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.- Hasierako onespena ematea Uzturre 10 kaleko partzelari dagokion Hitzarmen Urbanistikoari, partzelaren jabeak diren Igor ELLACURIA SANTOS eta Amaia PAGOLA OLANOrekin sinatu beharrekoari. Hitzarmenak honela dio:

Uzturre 10 kalean dagoen partzelaren jabeekin hitzarmen urbanistikoa, Uzturre kalearen berrantolaketa eta hobekuntzaren ondoriozko lur-lagapenen oinarriak ezartzen dituena.

BILDURIK

ALDE BATETIK, *Olatz Peon Ormazabal andrea, adinez nagusia.*
Hitzarmen honetarako helbidea: Plaza Zaharra 6A. Tolosa. Gipuzkoa.

Tolosako Udaleko alkate den aldetik dihardu ekintza honetan, eta horretarako ahalmena du Udalbatzak .....(e)an hartutako erabakiaren bidez. Hitzarmen honen I. eranskina da erabaki horren ziurtagiria.

BESTETIK*, Igor Ellacuria Santos jauna, adinez nagusia.*
NAN: 78884835X.
Jakinarazpenetarako helbidea: San Joan plaza 2, 2. C. Tolosa. Gipuzkoa.

Eta Amaia Pagola Olano andrea, adinez nagusia.
NAN: 72453409M.
Jakinarazpenetarako helbidea: San Joan plaza 2, 2. C. Tolosa. Gipuzkoa.

Beren izenean eta eskubidean dihardute.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1.- *2017ko uztailaren 18an, Igor Ellacuria Santos jaunak lizentzia eskatu zuela Tolosako Udaletxean, Uzturre kaleko 10. zenbakian dagoen familia bakarreko etxebizitza bat eraisteko eta berreraikitzeko.*

2.- *Igor Ellacuria jaunak eta Amaia Pagola Olano andreak erregistro-finka honen jabetza dutela, zeina honela deskribatuta dagoen:*

.- Hiri-lurra: Tolosako Uzturre kaleko hamargarren zenbakia duen etxea, bere lursailarekin. Bere perimetroaren barruan laurehun eta hogeita hamalau metro eta hogeita bost dezimetro

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

koadro ditu. Mugak: mendebaldera edo aurrealdera, CC bidearekin; eskuinera edo hegoaldera, Antonio Urreta jaunak eskuratutako B finkarekin; ezkerrera edo iparraldera, DD bidearekin, eta hondoan, ekialdera, Tolosako Udalarena den hamar lotearekin. Lursail horren erdian eraikita dago etxea eta laurogeita hamar metro koadroko orubea hartzen du, eta sotoa du, solairuaren erdia baino gehixeago hartzen duena, eta goiko solairu bat, logelatan banatua. Alde guztietatik mugakide du lehen deskribatutako lursaila, zeina ate aurreko eta baratzeko osagarri gisa geratzen den. Lursail horretako baratzean pabiloi txiki bat eraiki zen, eta alde guztietatik lursail horrekin muga egiten du.

Jabetza-erregistroaren oharra gehitu da 1. eranskin gisa, eta jabetzan duten finkaren mugaketa-planoa 2. eranskin gisa.

***3.-** 2017ko irailaren 15eko 1588 Dekretuaren bidez, obrak hasteko baimena eman zien Udalak, ezarritako baldintza orokor eta partikularren arabera, eta laugarren baldintza partikularra nabarmendu zen, honako hau ezartzen baitzuen:*

*"4.-**Hitzarmen bat sinatzea** Udalaren eta jabeen artean, "5.3 Uzturre kalea" azpi-esparruarekin lotutako obrak egiteko behar diren lurrak dohain emateko. Adibide gisa hartuko da Uzturre 8ko jabeekin 2008. urtean egindako hitzarmena".*

***4.-** 2008an formalizatutako hitzarmena Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu aurretik egin zen, eta horren tramitean Uzturre kalean dauden familia bakarreko eraikinak finkatzeko eskatu zen, kale hori berrantolatzeko eta hobetzeko **behar ziren lursailak** lagatzeko konpromisoarekin.*

***5.-** Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak, 2009ko martxoaren 3an hartutako erabakiaren bidez, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bategina onartu zuen (GAO, 60. zk., 2009ko martxoaren 31koa), eta horren barruan dago Uzturre kaleko 10. zenbakian dagoen eraikuntza, "5. ARRAMELE-ARKAUTE " hirigintza-esparruan.*

***6.-** "5. ARRAMELE-ARKAUTE" hirigintza-esparruaren hirigintza-fitxan, zehazki, C atalean, Uzturre kaleko urbanizazioari buruzkoan, ezartzen da urbanizazioa egikaritzea eta haren kostua ordaintzea "5.2 Antzinako erruki-etxea" eta "5.3 Uzturre kalea " azpi-esparruko jabeei jasanarazi behar zaiela, eta karga gisa sartu behar dela dagozkien birpartzelazio-proiektuetan.*

***7.-** Ondorioz, hitzarmen honen xedea da, batetik, betetzea 2017ko irailaren 15eko 1588 Dekretuan ezarritako baldintza, eta, bestetik, oinarriak ezartzea Plan Orokorreko proposamenak egikaritzeko behar diren lursailen lagapena egiteko, hain zuzen ere, Uzturre kalearen berrantolaketan eta urbanizazioan aipatzen diren proposamenak egikaritzeko.*

Azaldutako guztiagatik, bi aldeek egokitzat jo dute hitzarmen hau formulatzea eta sinatzea, estipulazio hauek oinarri hartuta:

ESTIPULAZIOAK

***LEHENENGOA.-** Igor Ellacuria Santos jaunak eta Amaia Pagola Olano andreak adierazi dute ados daudela aurreko epigrafeetan azaldutako aurreikuspen eta irizpideekin, bai eta horien ondoriozko eragin eta ondorioekin ere, beren jabetzako lursailen hirigintza-araubidea zehazteari dagokionez, eta honako konpromiso hauek hartu dituzte:*

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

- *Tolosako Udalaren esku jartzea Uzturre kalea berrantolatzeko, urbanizatzeko eta hobetzeko proiektuak ukitzen dituen bere jabetzako lurrak, eskatzen diren unean.*

- *Tolosako Udalari baimena ematea –hark hala behar duenean– beharrezkoak diren eta bere jabetzako lursailei eragiten dieten obrak egin ditzan, Uzturre bidea hobetzeko eta berrantolatzeko.*

- *Uzturre kalea hobetzeak, berrantolatzeak eta urbanizatzeak ukitutako lurren jabetza eskualdatzea eskritura publikoan formalizatuko da hilabeteko epean, Tolosako Udalak hala eskatzen duenetik kontatzen hasita. Eskualdatze horren formalizazio-kostuak Tolosako Udalak ordainduko ditu, eta Udalak, urbanizazio-kostu gisa, 5.2 "Antzinako erruki-etxea" eta 5.3 "Uzturre kalea" azpi-esparruei jasanaraziko dizkie.*

- *Jabetzaren eskualdaketa, nolanahi ere, doakoa izango da, bai Tolosako Udalarentzat, bai 5.2 "Antzinako erruki-etxea" eta 5.3 "Uzturre kalea" azpi-esparruetako jabeentzat.*

BIGARRENA.- SUBROGAZIOA.

Hitzarmen honen bidez hartutako betebehar eta konpromiso guztiak hitzarmen honek ukitzen dituen partzelen titulartasunari lotuta daude eta berez dagozkio.

Ildo horretan, finkaren bat eskualdatuz gero, hirugarren eskuratzailea betebehar eta konpromiso horietan subrogatuta dagoela ulertuko da, eta inguruabar hori esanbidez agerrarazi beharko da finkaren ondorioz ematen diren agiri pribatu eta publikoetan.

HIRUGARRENA.- FORMALIZAZIOA ETA JURISDIKZIOA.

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du. Ondorioz, hitzarmen horretatik, hura betetzetik edo ez betetzetik sortzen diren auzigai guztiak Tolosako Udalak ebatziko ditu. Haren ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, horretarako emanda dagoen legeria arautzailean aurreikusitako moduan.

Eta horrela jasota gera dadin, azaldutako guztiaren egiazkotasuna eta adostasuna frogatzeko, bi aldeek hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Olatz Peon Ormazabal
Tolosako alkatea

Igor Ellacuria Santos *Amaia Pagola Olano*

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea hogei eguneko epean, alegazioak aurkezteko. Xede horretarako, Hitzarmen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da osorik. Alegazio epea alarma egoera bukatu ondoren kontatzen hasiko da.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO UDALA

HIRUGARRENA.- Jendaurreko informazioan alegaziorik aurkezten ez bada, hitzarmena behin betikoz onartuta gelditzen dela kontsideratuko da.

LAUGARRENA.- Udaleko Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea Udalaren izenean aipatutako hitzarmena eta hura gauzatzeko beharrezko dokumentu guztiak izenpetzeko.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesatuei eta Hirigintza sailari.

3. ONARTZEA TOLOSAKO LASKOAIN KALEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO OBRAREN PROIKETUA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazioa
Unitate sustatzailea:	Obrak eta Zerbitzuak Azpisaila
Espedientea:	2020OASI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

II.- AURREKARIAK

Udal ingeniariak 2020ko otsailaren 5ean egindako txostenean, jarraian azaltzen diren datuak aipatzen zituen:

TOLOSAKO LASKOAIN KALEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA ONARTZEKO TXOSTENA

ESKATZAILEA: Diteco Ingeniería S.L.P.

ESKAERA: Proiektuaren onarpena.

AURKEZTURIKO DOKUMENTAZIOA: Proiektua era elektronikoan.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

AURREKARIAK

2018ko abenduaren 19an, Diteco Ingeniería S.L.P. enpresa "Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua" idazteko esleipendun atera zen.

Pleguetan, proiektuko idazlanari dagokionez, egin beharreko lanen deskribapen hauxe jasotzen zen:

1. Kartografia eta topografia osatu.

2. Azpiegituren hornitzaileekin harremanetan jarri eta informazioa lortu.

3. Aukeren azterketa egin, bertan, proposamen desberdinak landu eta zenbatetsi.

4. Urbanizazio proiektua

Horretan, bildu behar ziren, besteak beste, memoria, planoak, baldintza pleguak, aurrekontua, eranskinak, osasun eta segurtasun azterlana, kalitate kontrolerako agiria eta eraikuntza eta eraispenen hondakinen kudeaketaren azterlana.

5. Atalean hizkuntza irizpideak jaso ziren:

Proiektuaren ondorengo agiriak euskaraz eta gazteleraz egon beharko dute: memoria, planoak eta aurrekontuaren laburpena

2019ko otsailean, Diteco Ingeniería SLP enpresak aukeren azterketa bat idatzi zuen. Ondoren, Tolosako Udalak bizilagunekin eta merkataritzako ordezkariekin bilerak egin zituen. Horretaz gain, 2019ko ekainean, mugikortasun planaren zirriborro bat jaso zen Tolosako Udalean. Aurreko irizpideak aintzakotzat hartu eta agiria aztertu ondoren, aurkeztutako aukeren artean garatu beharrekoa hautatu zuen Udalak.

2019ko uztailean, Diteco Ingeniería SLP enpresak urbanizazio proiektua aurkeztu zuen.

2019ko abuztuaren 28an, hainbat departamentu eta zerbitzutako arduradunei txosten teknikoak eskatu zitzaizkien: Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, Tolargiri, lorezaintza zerbitzuari, Udaltzaingoari, Tolosa Gasari, mugikortasun aztertzaileei eta Mankomunitateari.

2019ko Urriaren 30ean AE19081 txostenean proiektua ez zen onartu, eta zuzendu beharreko puntuak zehaztu ziren.

2019ko Abenduaren 27an, Diteco Ingeniería SLP enpresak urbanizazio proiektua zuzendua aurkeztu zuen.

TXOSTENA

Txosten honen xedea Diteco Ingeniería, S.L.P.k idatzitako proiektua aztertzea da, eta egokia bada onartzea.

<u>Dokumentazioa</u>

Proiektuak, besteak beste, ondorengo dokumentazioa jasotzen du:

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

1. DOKUMENTUA- MEMORIA

MEMORIARI ERANSKINAK:

2. DOKUMENTUA- PLANOAK

3. DOKUMENTUA- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

4. DOKUMENTUA- AURREKONTUA

5. DOKUMENTUA- SEGURTASUN ETA OSASUN IKERKETA

Epea

Proiektuko lanak gauzatzeko 8 hilabeteko epea aurreikusi du.

Aurrekontua

Proiektua osatzen duten dokumentuetako bat aurrekontuarena da. Bertan, honako kopuruak dira jasotzen direnak:

Gauzatze aurrekontu materiala.....465.052,83 €
GO+EI (%19).....88.360,04 €
Kontrata aurrekontua.....553.412,87 €
Osasun eta Segurtasuna.....9.715,08 €
BEZ (%21).....118.256,87 €

GUZTIRA.....681.384,82 €

Proiektuan jasota dauden lan guztiak aurrekontuan dute isla. Halere, lan guztiak ez dira Udalaren kargu izango, baizik eta kopuru batzuk, zenbait azpiegiturei dagozkienak, beste enpresa batzuen kargu izango dira. Hain zuzen ere, hauek dira Udalaren kontura ez doazen lanak, beraien kostuekin (BEZ barne):

Gipuzkoako Urak (Ur-hornidura).....73.391,04 €
Gipuzkoako Urak (Ur zikinak).....64.469,16 €
Tolargi (Argindarra).....53.257,58 €

GUZTIRA.....191.117,78 €
UDALAK FINANTZIATZEKO .....490.267,04 €

Tolosako Udalak kontsignaturik du berak finantzatu behar duen kopurua 2019ko aurrekontuan eta 2020ko aurrekontuan, 700.601.12 15320 partidan, hain zuzen ere.

Esleipena egin aurretik, Udalak ondorengo hitzarmenak sinatu behar ditu:

Gipuzkoako Urak
Tolargi

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

RESUMEN DE PRESUPUESTO:

CAPITULO	RESUMEN		EUROS	%
A 01	AYUNTAMIENTO DE TOLOSA		332.347,07	71.46
-C 01	-DEMOLICIONES, EXCAVACIONES, TRABAJOS PREVIOS	21.962,10		
-C 03	-RED DE SANEAMIENTO DE PLUVIALES	51.481,36		
-C 06	-RED DE ALUMBRADO	46.290,58		
–C 07.01	–OBRA CIVIL Y PUNTOS DE LUZ	38.992,05		
–C 07.02	–CABLEADO	7.298,53		
-C 07	-RED DE TELECOMUNICACIONES	1.278,97		
-C 08	-PAVIMENTACIÓN	159.766,90		
-C 09	-MOBILIARIO URBANO	9.913,77		
-C 10	-PLANTACIONES	9.195,60		
-C 11	-SEÑALIZACIÓN	2.877,65		
-C 12	-SERVICIOS AFECTADOS Y VARIOS	10.469,53		
-C 13	-GESTIÓN DE RESIDUOS	3.260,00		
-C 14	-CONTROL DE CALIDAD	15.850,61		
A 02	TOLARGI. ENERGÍA ELÉCTRICA		36.987,00	7,95
-C 05	-RED DE ELECTRICIDAD	36.987,00		
A 03	CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA. ABAST. DE AGUA Y FECALES		95.718,76	20,58
-C 02	-RED DE ABASTECIMIENTO	50.969,54		
-C 04	-RED DE SANEAMIENTO DE FECALES	44.773,36		
		TOTAL EJECUCIÓN MATERIAL	465.052,83	
	13,00 % Gastos generales	60.456,87		
	6,00 % Beneficio industrial	27.903,17		
		SUMA DE G.G. y B.I.	88.360,04	
		TOTAL PRESUPUESTO ANTES DE IVA	553.412,87	
	SEGURIDAD Y SALUD	9.715,08		
		SUMA	563.127,95	
	21,00 % I.V.A.	118.256,87		
		TOTAL PRESUPUESTO GENERAL	681.384,82	

Esleipen prozedura

Baldintza pleguetan ondorengo puntuak hartu daitezke kontuan:

Prezioaren hobekuntza.

- Obren egikaritze epeari buruzko plangintza. Bereziki, bizilagunei sortutako eragina ahal den neurrian txikitzeko, hartutako neurrien aurreikuspena.

Kontratistek beharko duten klasifikazioari dagokionez, honakoa proposatzen da:

TALDEA.....E (Lan Hidraulikoak)
AZPITALDEA.....1 (Saneamendua eta ur hornidura)
KATEGORIA.....2 (Kontratuaren estimatutako balioa 150.000 € eta 360.000 € artekoa)

TALDEA.....G (Bideak eta mendi-bideak)
AZPITALDEA.....6 (Kualifikazio espezifikorik gabeko bide-obrak)
KATEGORIA.....2 (Kontratuaren estimatutako balioa 150.000 € eta 360.000 € artekoa)

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

ONDORIOZTAPENA

Hori guztia kontutan hartuta, DITECO INGENIERIA SLP enpresak idatzitako "**Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua**", obrak egikaritzeko proiektua onartzeko arazorik ez dagoela adieraz ten dut.

Esleipena hasi aurretik, Tolosako Udalak, Tolargi eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin bakoitzari dagokion hitzarmena sinatu beharko ditu.

Tolosa, 2020ko otsailaren 5a

III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, bere 231. artikuluan hau zehazten du **obra proiektuei** buruz:

231. artikulua. Obra-proiektua.1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, obra-kontratu bat adjudikatzeko, aldez aurretik proiektua egin, gainbegiratu eta onetsi egin behar da, baita haren zuinketa egin ere; proiektuak zehatz-mehatz adierazi behar du kontratuaren objektua. Kontratazio-organoak onetsiko du proiektua, salbu eta eskumen hori arau juridiko baten bidez beste organo bati eman bazaio berariaz.2. Proiektua eta obra biak batera adjudikatzekoak direnean, obra egin ahal izateko, kontratazio-organoak proiektua gainbegiratu eta onetsi egin beharko du, eta proiektuaren zuinketa egin

Halaber, 232. artikuluak obrei buruzko sailkapena egiten du eta 233. artikuluan, **proiektuen edukiari** eta proiektuak egitetik sortzen diren erantzukizunei buruz hau xedatzen du:

1. Obra-proiektuetan hauek sartu behar dira gutxienez:
a) Txostena, obraren objektua deskribatuta. Honako hauek jasoko dira txosten horretan: aurrekariak eta obrak hasi aurreko egoera, bete beharreko beharrizanak eta aukeratutako konponbidearen justifikazioa; betiere, aintzakotzat hartu beharreko faktore guztiak zehaztuta.
b) Delako obra erabat zehazteko beharrezkoak diren plano orokorrak eta xehetasun-planoak, eta, orobat, lursailen okupazioa eta zortasun-eskubideen eta gainerako eskubide errealen itzulketa zedarritzeko planoak, eta, hala badagokio, obrak eginez ukituko diren zerbitzuak zedarritzekoak.
c) Preskripzio tekniko partikularren agiria. Bertan, obrak deskribatuko dira eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adieraziz: lan horiek zer eratara egingo diren, kontratistak zer betebehar tekniko izango dituen, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen kalitatea eta obrak egiteko prozesua nola kontrolatuko diren.
d) Aurrekontua, aurrekontu partzialez osatuta edo ez; unitateko prezioak eta, hala dagokionean, prezio xehatuak ere adierazi beharko ditu, baita neurketen egoera-orria eta aurrekontua balioesteko beharrezkoak diren zehaztasunak ere. Aurrekontua funtsezko obren arabera antolatuko da, erregelamenduz ezartzen den eran.
e) Argibide moduan, lanak garatzeko egitaraua edo obra egiteko plana; hala badagokio, iraupena eta kostua zehaztuko dira.
f) Obraren zuinketak oinarri izango dituen era guztietako erreferentziak.
g) Segurtasun- eta osasun-azterlana edo, bestela, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan ezarritakoaren arabera.
h) Legezko edo erregelamenduzko arauetan ezarritako agiri guztiak.
2. Hala ere, lizitazioaren oinarrizko aurrekontu moduan BEZik gabe 500.000 eurotik behera dituzten lehen ezarpeneko, eraberritzeko zein konponketa handiak egiteko obren proiektuetarako, eta aurreko artikuluan

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

zerrendatutako gainerako proiektuetarako, erraztu, bateratu zein ezabatu ere egin daiteke goian aipatutako agirietakoren bat edo beste, lege hau garatzeko arauetan zehaztutako moduan, baldin eta horrela egindako agiri hauek nahikoa badira obrak zehaztu, balioetsi eta egiteko. Dena den, arau espezifikoetan horrela aurreikusten denean baino ezingo dira aurkeztu gabe utzi aurreko apartatuko g) letran aipatzen diren agiriak.
3. Obrak egiteko erabiliko diren lurren azterlan geotekniko bat ere sartu behar da proiektuan, obraren izaerarekin bateraezina ez bada behintzat; baita kontratuaren objektua hobeto zehazteko beharrezko diren aldez aurreko txostenak eta azterlanak ere.
4. Proiektua osorik Administrazioak berak kontratatu duenean, proiektuaren egileak edo egileek lege honetan ezartzen den moduan hartuko dute bere gain erantzukizuna. Prestazioa Administrazioaren lankidetzaz eta hark gainbegiraturik ematen bada, lankidetzaren arlokoak soilik izango dira erantzukizunak. Proiektu batek azterlan geotekniko bat biltzen duenean eta hartan ez direnean aurreikusi egikaritzen ari den kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10etik gorako igoera dakarten inguruabar jakin batzuk, haren egileari edo egileei 315. artikuluak ezartzen duen kalte-ordaina eskatu ahalko zaie, baina, haren 1. apartatuan aipatzen den ehuneko 20ko portzentajearen ordez, horretarako, ehuneko 10eko portzentajea ezarri beharko da.
5. Proiektuak nahitaez bete beharrekoak diren jarraibide teknikoen arabera egingo dira.
6. Obrak Administrazio Publikoak ustiatzen dituenean, obra ustiatu behar duen Administrazioaren inbertsioen egungo balio garbia, kostuak eta diru-sarrerak jaso beharko da proiektuan.

Kontratu honek, beraz, **administrazio-izaera** du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluaren a) atalean xedaturikoarekin bat; obra kontratua da hain zuzen ere, aipatutako Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzea izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoak agertzen dira: "*construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.).".*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, tokiko obra publikotzat jo daitezke toki erakundeek egindako lanak, baldin eta beren eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak emateko alorretan gauzatzen badira, kontratu legeria orokorrak ezarritako ezaugarriak betetzen badituzte eta beren diru-funtsekin edota beste batzuetako erakunde zein norbanakoen diru-laguntzarekin finantzatzen badira. Lege horren 25.2 artikuluaren d) atalean xedaturikoaren arabera, Udalak eskumena du bere titularitateko ekipamenduen gainean lanak burutzeko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei aplikagarri zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak, udalerrien eskumen propioak arautzen dituenak, udalerrien eskumen propiotzat hartzen du, beste batzuen artean, hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea, kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea, kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea, udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat, udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne), udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

diziplina-modua zehaztea, establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea, ea.
Beraz, lanen xedea eta izaera aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, obra hauek, **eraberritze-obrak** direla esan daiteke. Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

Proiektuan definituriko **obraren aurrekontu orokorra 681.384,82 eurokoa da % 21eko BEZa barne**, beraz, SPKLren 235. artikuluak xedatutako **ikuskapena egin behar da**, kontratuaren zenbatekoak 500.000,00 euro gainditzen baitu. Hala ere, adierazi behar da obra publikoaren proiektu horri buruzko txostena eman duela udal arkitekto teknikoak.

Proiektua onartu ondoren, SPKLren 236. artikuluak xedatzen du, obraren kontratazio-espedientea izapidetzen hasi aurretik, proiektuaren zuinketa egin beharko dela, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Kasu honetan esan behar dugu, lurren erabilgarritasuna ziurtatuta dagoela, **AE019039 txostenean** udal ingeniariak jasotakoaren arabera.

Zuinketa egitea ezinbestean bete beharreko baldintza izango da esleipen-jardunbide guztietan. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak egiaztatu behar dira.

Artikulu horren 4. atalak xedatzen du, proiektuaren zuinketa egin ostean, proiektua kontratazio espedienteari erantsi behar zaiola.

IV.- <u>KONTRATAZIO-ORGANOA</u>

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Lehendakariarena da. Hala ere, 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Alkate-Lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean obra-proiektuak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da obra-proiektu hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLaren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Diteco Ingeniería, S.L.P. enpresak aurkeztu duen, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-proiektua onartzea.

BIGARRENA.- Proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontua 681.384,82 eurokoa da % 21eko BEZa barne, horietatik 563.127,95 euro printzipalari dagozkionak eta 118.256,87 euro BEZari dagozkionak.

HIRUGARRENA.- Obraren kontratazio-espedientea izapidetzen hasi aurretik, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak egiaztatu beharko dira.

LAUGARRENA.- Erabaki horiek Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailari jakinaraztea.

4. GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREKIN HITZARMENA ONARTZEA TOLOSAKO LASKOAIN KALEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO OBRAK EGITEKO.

Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obretan aurreikusten dira hainbat lan Gipuzkoako Urak-ek egin behar dituenak, ur saneamendu eta ur hornidura sareen berrikuntzako lanak, hain zuen ere.

Aurrekoetan horrelako lanak egiteko, Gipuzkoako Ur kontsortzioarekin hitzarmenak sinatu dira eta, horien ondorioz, Tolosako udalak egiten zituen obra guztiak eta, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak erakundeak ordaindu egiten zizkion Tolosako udalari ur saneamendu eta ur horniduraren lanei zegozkien kopuruak.

Hala ere, azkeneko obretan egin den moduan, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, bere 31. artikuluan emandako ahalmenez baliatuta, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio lanak kontratatzeko jardunbide bateratua garatuko dute, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.

Sistema honek, hobeto bermatzen du erakunde bakoitzaren betebeharrak eta ardurak, izan ere erakunde bakoitza izango da bere kontratuaren jabe, nahiz, eta kontratazio

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

jardunbidea bide bateratutan eramango duen Tolosako Udalak, azken honek egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa baitute.

Beraz, ondorengo Akordioa hartzea proposatzen da

I.- AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren bitartez jarraitzea erabaki zuen. Hitzarmen honetan, Aguas de Gipuzkoa –Gipuzkoako Urak, S.A-rekin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuten bi aldeek.

Akordio horren bitartez Gipuzkoako Ur kontsortzioak Tolosako udalerrian, 3.350.000,00 € (BEZ-a barne) inbertitzeko konpromisoa hartu zuen hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabost urteetan, ur-saneamendu eta ur-hornidura dagokienez.

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak azken urtetan sinatu dituzte hitzarmenak, hainbat urbanizazio obretako ur-saneamendu eta ur-horniduraren kostuak Gipuzkoako Urak bere gain har ditzan.

Ikusirik udalak egin behar dituen obrak egiteko kaleko zorua altxatu behar dela, momentu egokia da ur-saneamendu eta ur-hornidura aldatzeko.

Gipuzkoako Urak egokitzat hartuko du Udalak egindako proiektua.

II.- APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Lehena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL), bere 31. artikuluan, sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu, ondoko hau xedatuz:

31. artikulua. Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetza publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.
1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu hauetakoren batean, lankidetza horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:
a) Lankidetza bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatzaileentzat 32. artikuluan eta botere adjudikatzailearen izaera ez duten sektore publikoko enteentzat 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzeko ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.
b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.
2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolanahi ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.
3. Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakundek beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.
Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eraman dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horiena guztiena erantzukizuna. Erakunde bakoitza bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarra izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

SPKLren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Urak, S.A.-k botere esleitzailearen izaera du. Izan ere:

- Sozietate honen akziodun bakarra Gipuzkoako Ur Partzuergoa da akzioen % 100arekin,
- Bere xedea ur hornidurako eta saneamenduko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena da.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere jarduera kontrolatzen eta zuzentzen du.

Beraz, Tolosako Udala eta Gipuzkoako Urak S.A. sektore publikoko entitateak direla ikusita, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta **hitzarmenen bidez, kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko. Kasu horretan, 31. artikuluaren 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.**

Bigarrena.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluak, besteak beste udal eskumeneko zerbitzuak emateko, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetza ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetza hori, dagokion hitzarmena edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Kasu honetan, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obrak kontratatzeko eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak izenpetzen duten hitzarmena, kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa, Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47, 48, 49, 50, 51, 52, eta 53 artikuluetan xedaturikoa izango da.

Hirugarrena.- Hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna zehazteko, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak eta 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak zehazten dutena izan beharko da kontuan. Hitzarmenaren xedea, obra-kontratu bat denez, kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Lehendakariarena da. Hala ere, 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Alkate-Lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetu zituen hainbat eskumen, horien artean lankidetza-hitzarmenak; beraz, Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Hitzarmena Gipuzkoako Urak, erakundearekin Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio lanak modu bateratuan egiteko.

Hitzarmena ondorengo da :

TOLOSAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO URAK S.A.-ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Tolosan, 2018ko martxoaren 18an

BILDURIK

OLATZ PEON ORMAZABAL A*., Tolosako udaleko Alkate-Udalburua*

IÑIGO ELOSEGI VALLEJO J.*, Gipuzkoako Urak S.A.ren ordezkaria*

Egintza honetan fede ematen du Begoña Garmendia Vazquez, Tolosako udaleko Idazkariak

ESKU HARTU DUTE

Iñigo Elosegi jaunak bere jarduneko kargua betez, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren berariazko baliabidea den GIPUZKOAKO URAK S.A.-ren izenean eta hura ordezkatuz. Ordezkaritza hau egiaztatu du Donostiako Notarioa den Juan Aurelio Lazaro Perez J.-ren aurrean 1.994ko martxoaren 1ean emandako ahalordetze-eskrituraren bitartez, bere protokoloaren 535 zk.a duena.

Olatz Peon Ormazabal andreak, bere jarduneko kargua betez, Tolosako udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Tokiko gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 6an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

AURREKARIAK

LEHENA.- *Tolosako Udalak, 2006ko azaroaren 28an, uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren esku jartzea erabaki zuen. Hitzarmen honetan, Aguas de Gipuzkoa –Gipuzkoako Urak, S.A.-rekin dagokion kudeaketa-agindua onartzea hitzartu zuten bi alderdiek.*

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- *Akordio honen bitartez Gipuzkoako Ur kontsortzioak Tolosako udalerrian, 3.350.000,00 € (BEZ-a barne) inbertitzeko konpromisoa hartu zuen hitzarmena sinatu eta hurrengo hamabost urteetan.*

HIRUGARRENA.- *Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko martxoaren 17an egindako bilkuran, besteak beste, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazioa jasotzen dituen proiektua onartu du. Exekuzio-Proiektua DITECO INGENIERIA enpresak idatzi du.*

Proiektu horren barne, ur saneamendu eta ur hornidura sareen berrikuntzako lanak aurreikusten dira. Lan horiek, aurrez aipatutako hitzarmenaren arabera Ur Kontsortzioko berariazko baliabidea den Gipuzkoako Urak S.A. enpresa publikoak exekutatu behar ditu, baina, zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera, ezin dira banatu kalearen berrurbanizazioaren lanekin, eta, ondorioz bi obra aldi berean gauzatu behar dira, zera, Tolosako udalaren eskumeneko lanak, eta Ur Kontsortzioari dagozkionak.

Gipuzkoako Urak S.A.-ren ordezkariak, bere aldetik, aipatu diren lanak 2020ko urteko inbertsioen egitasmoaren barruan daudela azaldu du.

LAUGARRENA.- *Hitzarmen hau izenpetzen duten ordezkarien aburuz, Laskoain kalean exekutatu beharreko lanak era koordinatuan gauzatu behar dira, orain arte izan diren esperientzietan oinarriturik. Halaber, exekutatu behar diren obra guztiak aldi berean gauzatuz gero, herritarrek jasango dituzten eragozpenak murriztuko dira. Ez da ahaztu behar ere, eremu horretan merkataritza jarduera ugari garatzen direla, eta ezinbestekoa da bermatzea obren exekuzioa ahalik eta azkarren gauzatuko dela. Azkenik, bi obra batera exekutatzearekin, xede horretara atxikituko diren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuko dira, efizientzia eta eraginkortasuna hobetuz. Arrazoi hauengatik, hemen agertzen diren ordezkariek onartu dute bi erakundeen arteko kooperazioa jasotzen duen lankidetza hitzarmen hau izenpetzea, ondoko xedearekin:*

- *Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio lanak egiteko kontratazio jardunbide bakarra gauzatuko dute Tolosako udalak eta Gipuzkoako Urak S.A.-k. Horretarako, Gipuzkoako Urak S.A.-k ezinbestekoa den ahalmena ematen dio Tolosako udalari, erakunde honek obren kontratazio-jardunbidea izapide dezala, obren esleipenduna proposatu arte.*
- *Erakunde bakoitzaren organo eskudunak dagokion obren adjudikazioa ebatziko du, eta kontratua izenpetuko du. Beraz, bi kontratu izenpetuko dira; bat Tolosako udalak eta bestea Gipuzkoako Urak S.A.k, bakoitzari dagokion obraren arabera.*
- *Erakunde bakoitzeko organo eskudunak izango du bere kontratuaren exekuzio, harrera eta likidazioaren ardura.*
- *Obrak finantzatzeko irizpideak adostuko dituzte bi erakundeek eta dokumentu honetan islatuko dituzte.*
- *Hitzarmen honetan xedatzen den kooperazio esparruaren jarraipena egiteko, batzorde bat eratuko dute bi erakundeek*

BOSGARRENA.- *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikuluak, sektore publikoko erakundeen arteko kooperazio horizontala zein bertikala arautzen ditu, ondoko hau xedatuz:*

31. artikulua. Auto-antolaketarako ahalmena eta lankidetza publiko bertikal eta horizontaleko sistemak.
1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira honako modu

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

hauetakoren batean, lankidetza horren emaitza kontratu-izaerakotzat hartu gabe:
a) Lankidetza bertikaleko sistemen bitartez, alegia, bitarteko propio pertsonifikatuak erabiliz botere adjudikatzaileentzat 32. artikuluan eta botere adjudikatzailearen izaera ez duten sektore publikoko enteentzat 33. artikuluan ezarritako zentzuarekin eta mugekin, beren burua antolatzeko ahalmenaz baliatuta, kasuan kasuko mandatu-akordioaren bitartez.
b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza horizontaleko sistemen bitartez, aurrez behar diren itunak eginez, 6. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin.
2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek, nolanahi ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute.
3. Kontratazio-prozedura bat bere osotasunean hainbat erakundek beren izenean eta beren kontura batera garatzen dutenean, erakunde horien guztien erantzukizuna izango da beren betebeharrak betetzea. Hori bera aplikatuko da erakunde bakar batek bere kontura eta gainerako erakunde interesdunen kontura prozedura administratzen duen kasuetan ere.
Kontratazio-prozedura bat erakunde interesdunen izenean eta haien kontura osorik garatzen ez denean, soilik batera aurrera eraman dituzten atalei dagokienez izango da erakunde horiena guztiena erantzukizuna. Erakunde bakoitza bere betebeharrak betetzearen erantzule bakarra izango da bere izenean eta bere kontura aurrera eramaten dituen ataletan.

SPKLren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gipuzkoako Urak, S.A.-k ***botere esleitzailearen izaera du****. Izan ere:*

- *Sozietate honen akziodun bakarra Gipuzkoako Ur Partzuergoa da akzioen %100arekin,*
- *Bere xedea ur hornidurako eta saneamenduko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena da.*
- *Gipuzkoako Ur Partzuergoak bere jarduera kontrolatzen eta zuzentzen du.*

Beraz, Tolosako udala eta Gipuzkoako Urak S.A. sektore publikoko entitateak direla ikusita, kooperazio horizontalaren printzipioari jarraituz eta ***hitzarmenen bidez, kontratazio jardun bateratua izapidetu dezakete obra jakin batzuk egiteko. Kasu horretan, 31. artikuluaren 3. atalean xedaturikoa aplikatuko litzateke.***

SEIGARRENA.- *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluak, besteak beste udal eskumeneko zerbitzuak emateko, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetza ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetza hori, dagokion hitzarmena edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.*

Kasu honetan, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obrak kontratatzeko eta exekutatzeko Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak S.A.-k izenpetzen duten hitzarmena, kooperazio hitzarmena da. Beraz, hitzarmenaren araubide juridikoa, Sektore Publikoko araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47, 48, 49, 50, 51, 52, eta 53 artikuluetan xedaturikoa izango da.

ZAZPIGARRENA.- *Bi erakundeen arteko kooperazio esparruaren araubidea argitu ondoren, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak, S.A.-k, hitzarmen hau sinatzen dute, Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio lanak kontratatzeko jardunbide bateratua garatzeko, nahiz eta erakunde bakoitzak bere gain hartuko dituen kontratu bakoitzarekin loturiko betebeharrak.*

Kontuan izanda Tolosako udalak egin behar dituen obrek askoz ere aurrekontu handiagoa dutela bi aldeek onartzen dute Tolosako udalak izapidetuko duela Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio lanen kontratazio espedientea, eta, Tolosako Udalak

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

aztertuko dituela eskaintzak eta obren adjudikazioa proposatuko duela.

Hala ere, obra kontratua bitan banatuko da, alde batetik Gipuzkoako Urak S.A.-k, bere gain hartuko ditu ur saneamendu eta ur horniduraren obrak egitea eta ordaintzea eta, bestetik, gainontzeko obrak Tolosako udalak hartuko ditu bere gain

Obra proiektua DITECO INGENIERIA enpresak egin du, eta Gipuzkoa Urak, S.A. enpresak onartu egiten du eta ontzat ematen du egindako proiektua.

Beraz, bi erakundeetako ordezkariek

HITZARTU DUTE

***LEHENA.-**. Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Urak S.A.-k onartzen dute Tolosako udalak izapidetuko duela Tolosako Laskoain kaleko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio obrak, DITECO INGENIERIA enpresak egindako proiektuaren arabera.*

Gipuzkoako Urak S.A.-k ontzat ematen du proiektu hori. Nolanahi ere, aurreikusten diren lan guztiak bat etorriko dira Gipuzkoako Bajako Sareari buruzko Araudi Teknikoak eta aplikatu beharreko araudiak xedatzen dituzten eskakizunekin eta, ondorioz, nahiz eta proiektuan jasotako ur hornidura eta saneamenduaren lanak ontzat ematen dira, edozein kasutan aipatutako araudiak bete beharko dira.

Halaber, Gipuzkoako Urak S.A.-k bere adostasuna adierazten du Tolosako udalak onarturiko Baldintza Administratiboen Pleguarekin eta Preskripzio Teknikoen Orriarekin.

*Kontratua esleitzeko jardunbidea SPKLn xedaturikoarekin bat etorriko da. Hortaz, **jardunbide irekia** erabiliko da, SPKLen aurreikusitakoari jarraiki. Halaber, eskaintzak balioesteko eta ekonomikoki abantailatsuena den eskaintza zehazteko, kontratuaren xedearekin lotura duten hainbat irizpide erabiliko dira, SPKLren 145. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa jarraituz. Azkenik, espedientearen izapidetzea **ohikoa** izango da.*

Ondorioz, Tolosako udalak ondorengo eskumenak izango du kontratua esleitzeko:

- *Baldintza Administratiboen Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria onartu.*
- *Kontratazio-espedientea onartu.*
- *Lizitazioa abian jarri*
- *Iragarkiak egin.*
- *Kontratazio mahaia osatu.*
- *Eskaintzak aztertu eta baloratu, bai teknikoki, baita ekonomikoki ere, Pleguetan xedatutakoa jarraituz.*
- *Esleipen proposamena egin, eta esleipendunari errekerimendua formulatzea, esleipena gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezala.*
- *Tolosako udalak egindako esleipen proposamena loteslea izango da Gipuzkoako Urak S.A.-rentzat. Halaber, Gipuzkoako Urak S.A.-k, Tolosako udalak proposaturiko esleipena ebatziko du hamar eguneko epean.*
- *Obra zuzendaritza izendatu.*

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

Gipuzkoako Urak S.A.-k, bere aldetik, ondoko eskubide hauek izango ditu:

- *Ordezkari bat izendatzeko, Tolosako udaleko kontratazio mahaiko bileretan parte har dezan.*
- *Kontratazio espedienteko dokumentazioa (pleguak, txostenak, aktak, esleipen proposamena etab.) kontsultatzeko eta bere iritzia emateko.*
- *Teknikari bat izendatzeko , berari dagokion obra gainbegira dezan.*

BIGARRENA.- *Tolosako udalak eta Gipuzkoako Urak S.A.-k izenpetuko dute obra-kontratu bana, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin.*

Erakunde bakoitzak izango du eskumena dagokion obraren exekuzioan zehar. Edonola ere, obren exekuzioa, harrera eta likidazioa, Baldintza Administratiboen Pleguan eta Preskripzio Teknikoen Orrian xedaturikoaren arabera emango dira. Era honetan:

- *Erakunde bakoitzak, dagokion obra-kontratua izenpetuko du, bakoitzari dagokion lanen zatiarekin, onarturiko Proiektuaren arabera.*
- *Erakunde bakoitzak ordainduko du bere betebeharrei dagozkien fakturak edo obra ziurtagiriak, Baldintza Administratiboen Pleguan xedaturikoa jarraituz.*
- *Kontratuaren aldaketak, emango balira, Baldintza Administratiboen Pleguan eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legea xedaturikoarekin bat etorriko dira. Erakunde bakoitza arduratuko da dagokion obra zatiaren aldaketaz.*
- *Obren exekuzioan aldaketak egiten badira, aldaketa espedientearen berri eman beharko zaio beste erakundeari.*
- *Erakunde bakoitzak hartuko du dagokion obra-zatia, eta haren likidazioa ebatziko du.*

Horretaz gain, Gipuzkoako Urak, S.A.-k, kontratua bertan behera utziko nahi izango balu Tolosako udalaren baimena jaso beharko luke, izan ere bi kontratuak batera exekutatu behar dira.

HIRUGARRENA.- *Erakunde bakoitzak finantzatuko du bakoitzari dagokion obra-zatia. Proiektuan jasotakoaren arabera, hasiera batean erakunde bakoitzari dagokion kopurua honakoa da:*

*- Tolosako Udalari…….....……543.524,62 (BEZ barne)**
- Gipuzkoako Urak S.A.ri.....……..137.825,44 (BEZ barne)

**Hemen sartu da TOLARGI S.A. udaleko sozietateari dagokion kopurua*

Bi alderdiek onartu dituzte aurrekontu hauek egintza honetan. Halaber, hitzarmena sinatzerakoan, kontratazio hauei aurre egiteko nahikoa kreditua erabilgarria dutela adierazi dute agertutakoek.

LAUGARRENA- *Hitzarmen honen iraupena lotuta egongo da lanen exekuzioarekin, amaiera eta kitapenarekin. Beraz, amaituko da obren kitapenarekin batera. Baldintza Administratiboen Pleguan xedatutakoaren arabera, obren iraupena zortzi (8) hilabetekoa izango da.*

BOSGARRENA.- *Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du, eta bertan aurreikusten ez*

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

den guztian ondoko hauek aplikatuko dira:

- *Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea*
- *Sektore Publikokok Araubidea arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legea*
- *Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017 Legea.*

Eta goian aipaturiko leku eta datan, bi ordezkariek izenpetu dute hitzarmen hau, beran adostasuna adieraziz.

TOLOSAKO UDALA	*GIPUZKOAKO URAK S.A.*
Olatz Peon Ormazabal	*Iñigo Elosegui Vallejo*

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Urak S.A. enpresari, Obra eta zerbitzuetako departamentuari eta kontuhartzailetzari.

5. TOLOSAKO UZTURPE FRONTOIKO TEILATUA ETA ZEHARRARGI BERTIKALAK ERABERRITZEKO OBREN PROIEKTUA ONARTZEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Uzturpe frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko obra
Unitate sustatzailea:	Hirigintza Saila
Espedientea:	B.5.2.2/2019/0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

II.- AURREKARIAK

Udal arkitekto teknikoak 2020ko urtarrilaren 20an egindako txostenean, jarraian azaltzen diren datuak aipatzen zituen:

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO UDALA

AC20014 Esp. Zkia.: B222/2019/0002

PROIEKTUA ONARTZEKO TXOSTENA

UZTURPE FRONTOIKO TEILATUA eta ZEHARRARGI BERTIKALAK ERABERRITZEKO PROIEKTUAREN ONARPENA

Santa Lutzia auzoa 26

PROIEKTUAREN SUSTATZAILEA	Tolosa Lantzen, SA		
ESPEDIENTE ZENBAKIA	B222/2019/0002		
KOKAPENA	Santa Lutzia auzoa, 26 – Uzturpe frontoia		
ESKAERA	Uzturpe frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko proiektua onartzea		
ESKAERAREN DATA	2020/01/03 2020/01/13	**ERREG. ZK.**	98 345
AURKEZTUTAKO DOK.	Uzturpe frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko gauzatze-proiektua (rev.4) Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak sinatua. Aurkezte datak: memoria 2020/01/03an 98 erregistro zenbakiarekin, eta planoak 2020/01/13an 345 erregistro zenbakiarekin.		

AURREKARIAK

2019/05/08: Juan Antonio Aranburuk Uzturpe frontoiko teilatua konpontzeko txosten baloratua aurkeztu zuen
2019/10/18: Uzturpe frontoiko teilatua eraberritzeko gauzatze-proiektua aurkeztu zen (rev.1)
2019/11/25: Uzturpe frontoiko teilatua eraberritzeko gauzatze-proiektua aurkeztu zen (rev.2)
2019/12/26: Uzturpe frontoiko teilatua eraberritzeko gauzatze-proiektua aurkeztu zen (rev.3)

TXOSTENA

TXOSTENAREN XEDEA:

Txosten honen helburua da Uzturpe frontoiko teilatua eraberritzeko proiektua onartzea. Proiektu honen sustatzailea Tolosa Lantzen, SA da.

PROIEKTUAREN HELBURUA:

Aurkeztutako memoriaren arabera, proiektuaren xedea honakoa da:

"Se quiere presentar a ofertas exteriores, por parte de Tolosa Lantzen, la reforma-sustitución de la cubierta del frontón Uzturpe y la parte de fachada sur que está recubierta de un onduline de mini onda con un plástico traslúcido, que se encuentran en mal estado, goteras y roturas de piezas de policarbonato, encuentros y remates.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

ERAIKINAREN EGUNGO EGOERA

Aurkeztutako proiektuaren memorian horrela definitzen da:

"El frontón situado en una zona urbana, consta de dos zonas, la de uso del propio frontón con sus gradas y un anexo en los que se sitúa la zona de vestuarios.

La estructura es de hormigón prefabricado tanto en vigas-cerchas como en correas que son las que soportan directamente el elemento de la cubrición.

Las fachadas del frontón se conforman con paneles de hormigón prefabricados que exteriormente son vistos y sellados.

El soporte del material de cubierta en vigas prefabricadas en función de correas son en forma de "Canal" de una anchura total aproximada de 50 cm y un canto de unos 25 cm. Sobre esta correa se deben de apoyar los elementos de cubrición propuestos de panel de aluminio.

El material que tiene la cubierta es de fibrocemento ondulado, material que tiene amianto-cemento. El fibrocemento ondulado se encuentra distribuido en la cubierta de faldón Norte en el perímetro del pabellón en el tipo de ciego y luego un gran hueco de unos 10x52 mts. en un material plástico traslúcido de mini onda. En el faldón de cubierta Sur, el material de fibrocemento ondulado es el 100%.

La otra parte a reformar que se encuentra en la cara sur y forma parte del alzado sobre la cubierta anexa al pabellón, se encuentra formado por material plástico en forma de mini onda y sujeta por una estructura de perfil metálico en horizontal amarrada a los soportes de hormigón prefabricado que conformas los pórticos prefabricados de hormigón.

Este material se encuentra totalmente degradado con un aspecto muy envejecido y con bastantes agujeros por falta de material y roturas de esquinas y encuentros.

ERAIKINA EGOKITZEKO PROPOSAMENA:

Aurkeztutako proiektuaren memorian horrela definitzen da:

"Medidas de seguridad
- Colocación de redes horizontales.
- Barandados perimetrales en cubiertas.
- Módulos andamios movibles de apoyos en los trabajos desde el interior

Trabajos en cubierta.
- Retirada de la actual cubrición de Uralita y los encuentros existentes.
- Nueva colocación de cubierta con paneles sanwich de aluminio lacado con aislamientos de poliuretano inyectado de 3 cm. de espesor.
- Recomposición de canalones interiores y laterales perimetrales, con sus respectivos encuentros e injertos a la actuales bajantes.
- Remates y encuentros con fachadas.
- Sustitución de actuales bajantes por otras de mayor sección de boca y material.
- Colocación de línea de vida para trabajos de mantenimiento.

Justificación de pesos en cubierta
- El comparativo de los pesos propios existentes y futuros que se le proporciona a la cubierta del frontón se pueden considerar iguales o algo menores.
- A sí la cobertura actual compuesta por placas de fibrocemento ondulado el peso propio medio es de 12 kg/m2 y el panel de cubrición propuesto en proyecto es el TZ-C Teczone (0,5+3+0,5) pesa 10 kg/m2.
- Por lo tanto a la actual estructura de cubierta formada por cerchas y correas de hormigón armado, no se le proporciona mayores esfuerzos que los que actualmente tiene.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

Trabajos en ventanal-traslúcido.
- *Retirada de material plástico ondulado.*
- *Colocación- mantenimiento de estructura de soporte del nuevo material de cierre y perímetro de hueco.*
- *Colocación de policarbonatos clipados y remates más sellados perimetrales."*

PROIEKTUAREN EDUKIA:

Proiektuaren edukia hauxe da: memoria, planoak, aurrekontua, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Hondakinen Kudeaketaren Azterlana, Kalitate Kontrol Plana eta Baldintza Plegua.

INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETETZEA:

Hirigintza araudia:
Tolosako Plan Orokorra (2009)
Eraikina "1. Santa Luzia- irakaskuntza ekipamendua" esparruan kokatuta dago.
Egin nahi den obrak hirigintza araudia betetzen du.

Ur Agentzia:

Eraikina ez dago jabari publiko hidraulikoaren edo zaintza eremuaren barruan. Zaintza eremu barruan badago ere, Pisuaga errekatik 100 m baino hurbilago, gune Uholdegarritik kanpo dagoenez eta obra entitatea eskasa izatean, ez da beharrezkoa Ur Agentziaren baimena obra hau egiteko.

Bizigarritasuna EKT-OD-BB:

Proiektuan araudi hau betetzea justifikatzen du, 1 eta 5 atalak, hain zuzen ere.

Egitura segurtasuna EKT-OD-EgS:

Proiektuan araudi hau betetzea justifikatzen du.

Suteen aurkako babesa EKT-OD-SS:

Proiektuan araudi hau betetzea justifikatzen du.

Erabilearen segurtasuna EKT-OD-ESI:

Proiektuan araudi hau betetzea justifikatzen du.

Energia aurreztea EKT-OD-HE:

Ez dagokio araudi honen betetzea.

Irisgarritasuna:

Ez dagokio araudi honen betetzea.

AURREKONTUA

Proiektuaren **EGIKARITZE MATERIALAREN AURREKONTUA 119.156,64 eurokoa** da. **Aurrekontua guztira 171.573,64 euro**tako da, BEZ barne.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

OBRAK EGIKARITZEKO EPEA

Proiektuan zehazten denaren arabera, obrak egikaritzeko **epea 3 hilabetekoa** da, Eusko Jaurlaritzak hondakinak kudeatzeko baimena ematen duenetik (izapide hori egiteko aurreikusten den epea 3 hilabetekoa da).

OBRA SAILKAPENA 9/2017 LEGEAREN ARABERA (232. ART.)

9/2017 Legearen arabera, egin beharreko lanak, alde batetik, kontserbazio- eta mantentze-lanak dira, ondasunaren erabilera naturalak denboran zehar eragindako esku-hartzeak baitira; eta, bestetik, eraberritze-lanak, lehendik dagoen ondasun higiezin bat hobetzeko esku-hartzeak baitira. Beraz, obra-kontratu bidez arautuko diren lanak dira.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Hori guztia ikusita, hauxe proposatzen da:

Onartzea *" Arreglo-sustitución de cubierta y traslúcido vertical. Rev. 4*" gauzatze-proiektua, Juan Antonio Aranburu Aizpuru arkitekto teknikoak sinatutakoa. Memoria erregistratu zen 2020/01/03an 98 erregistro zenbakiarekin, eta planoak, 2020/01/13an 345 erregistro zenbakiarekin.

III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, bere 231. artikuluan hau zehazten du **obra proiektuei** buruz:

231. artikulua. Obra-proiektua.1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, obra-kontratu bat adjudikatzeko, aldez aurretik proiektua egin, gainbegiratu eta onetsi egin behar da, baita haren zuinketa egin ere; proiektuak zehatz-mehatz adierazi behar du kontratuaren objektua. Kontratazio-organoak onetsiko du proiektua, salbu eta eskumen hori arau juridiko baten bidez beste organo bati eman bazaio berariaz.2. Proiektua eta obra biak batera adjudikatzekoak direnean, obra egin ahal izateko, kontratazio-organoak proiektua gainbegiratu eta onetsi egin beharko du, eta proiektuaren zuinketa egin

Halaber, 232. artikuluak obrei buruzko sailkapena egiten du eta 233. artikuluan, **proiektuen edukiari** eta proiektuak egitetik sortzen diren erantzukizunei buruz hau xedatzen du:

1. Obra-proiektuetan hauek sartu behar dira gutxienez:
a) Txostena, obraren objektua deskribatuta. Honako hauek jasoko dira txosten horretan: aurrekariak eta obrak hasi aurreko egoera, bete beharreko beharrizanak eta aukeratutako konponbidearen justifikazioa; betiere, aintzakotzat hartu beharreko faktore guztiak zehaztuta.
b) Delako obra erabat zehazteko beharrezkoak diren plano orokorrak eta xehetasun-planoak, eta, orobat, lursailen okupazioa eta zortasun-eskubideen eta gainerako eskubide errealen itzulketa

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

zedarritzeko planoak, eta, hala badagokio, obrak eginez ukituko diren zerbitzuak zedarritzekoak.
c) Preskripzio tekniko partikularren agiria. Bertan, obrak deskribatuko dira eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adieraziz: lan horiek zer eratara egingo diren, kontratistak zer betebehar tekniko izango dituen, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen kalitatea eta obrak egiteko prozesua nola kontrolatuko diren.
d) Aurrekontua, aurrekontu partzialez osatuta edo ez; unitateko prezioak eta, hala dagokionean, prezio xehatuak ere adierazi beharko ditu, baita neurketen egoera-orria eta aurrekontua balioesteko beharrezkoak diren zehaztasunak ere. Aurrekontua funtsezko obren arabera antolatuko da, erregelamenduz ezartzen den eran.
e) Argibide moduan, lanak garatzeko egitaraua edo obra egiteko plana; hala badagokio, iraupena eta kostua zehaztuko dira.
f) Obraren zuinketak oinarri izango dituen era guztietako erreferentziak.
g) Segurtasun- eta osasun-azterlana edo, bestela, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan ezarritakoaren arabera.
h) Legezko edo erregelamenduzko arauetan ezarritako agiri guztiak.
2. Hala ere, lizitazioaren oinarrizko aurrekontu moduan BEZik gabe 500.000 eurotik behera dituzten lehen ezarpeneko, eraberritzeko zein konponketa handiak egiteko obren proiektuetarako, eta aurreko artikuluan zerrendatutako gainerako proiektuetarako, erraztu, bateratu zein ezabatu ere egin daiteke goian aipatutako agirietakoren bat edo beste, lege hau garatzeko arauetan zehaztutako moduan, baldin eta horrela egindako agiri hauek nahikoa badira obrak zehaztu, balioetsi eta egiteko. Dena den, arau espezifikoetan horrela aurreikusten denean baino ezingo dira aurkeztu gabe utzi aurreko apartatuko g) letran aipatzen diren agiriak.
3. Obrak egiteko erabiliko diren lurren azterlan geotekniko bat ere sartu behar da proiektuan, obraren izaerarekin bateraezina ez bada behintzat; baita kontratuaren objektua hobeto zehazteko beharrezko diren aldez aurreko txostenak eta azterlanak ere.
4. Proiektua osorik Administrazioak berak kontratatu duenean, proiektuaren egileak edo egileek lege honetan ezartzen den moduan hartuko dute bere gain erantzukizuna. Prestazioa Administrazioaren lankidetzaz eta hark gainbegiraturik ematen bada, lankidetzaren arlokoak soilik izango dira erantzukizunak. Proiektu batek azterlan geotekniko bat biltzen duenean eta hartan ez direnean aurreikusi egikaritzen ari den kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10etik gorako igoera dakarten inguruabar jakin batzuk, haren egileari edo egileei 315. artikuluak ezartzen duen kalte-ordaina eskatu ahalko zaie, baina, haren 1. apartatuan aipatzen den ehuneko 20ko portzentajearen ordez, horretarako, ehuneko 10eko portzentajea ezarri beharko da.
5. Proiektuak nahitaez bete beharrekoak diren jarraibide teknikoen arabera egingo dira.
6. Obrak Administrazio Publikoak ustiatzen dituenean, obra ustiatu behar duen Administrazioaren inbertsioen egungo balio garbia, kostuak eta diru-sarrerak jaso beharko da proiektuan.

Kontratu honek, beraz, **administrazio-izaera** du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluaren a) atalean xedaturikoarekin bat; obra kontratua da hain zuzen ere, aipatutako Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzea izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoak agertzen dira: "*construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.).".*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, tokiko obra publikotzat jo daitezke toki erakundeek egindako lanak, baldin eta beren

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak emateko alorretan gauzatzen badira, kontratu legeria orokorrak ezarritako ezaugarriak betetzen badituzte eta beren diru-funtsekin edota beste batzuetako erakunde zein norbanakoen diru-laguntzarekin finantzatzen badira. Lege horren 25.2 artikuluaren d) atalean xedaturikoaren arabera, Udalak eskumena du bere titularitateko ekipamenduen gainean lanak burutzeko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei aplikagarri zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak, udalerrien eskumen propioak arautzen dituenak, udalerrien eskumen propiotzat hartzen du, beste batzuen artean, hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea, kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea, kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea, udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat, udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne), udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea, establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea, ea.

Beraz, lanen xedea eta izaera aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, obra hauek, **eraberritze-obrak** direla esan daiteke. Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

Proiektuan definituriko **obraren aurrekontu orokorra 171.573,64 eurokoa da % 21eko BEZa barne**, beraz, SPKLren 235. artikuluak xedatutako **ikuskapena ez da egin behar**, kontratuaren zenbatekoak ez baitu 500.000,00 gainditzen. Hala ere, adierazi behar da obra publikoaren proiektu horri buruzko txostena eman duela udal arkitekto teknikoak.

Proiektua onartu ondoren, SPKLren 236. artikuluak xedatzen du, obraren kontratazio-espedientea izapidetzen hasi aurretik, proiektuaren zuinketa egin beharko dela, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Kasu honetan esan behar dugu, lurren erabilgarritasuna ziurtatuta dagoela, **aipatutako eraikina udal inbentarioan baitago**

Zuinketa egitea ezinbestean bete beharreko baldintza izango da esleipen-jardunbide guztietan. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak egiaztatu behar dira.

Artikulu horren 4. atalak xedatzen du, proiektuaren zuinketa egin ostean, proiektua kontratazio espedienteari erantsi behar zaiola.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

IV.- <u>KONTRATAZIO-ORGANOA</u>

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Lehendakariarena da. Hala ere, 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Alkate-Lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean obra-proiektuak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da obra-proiektu hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

<u>LEHENA</u>.- Onartzea Tolosako Uzturpe frontoiko teilatua eta zeharrargi bertikalak eraberritzeko Juan Antonio Aranburu Aizpuru jaunak egindako obra- proiektua.

<u>BIGARRENA</u>.- Onartzea proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontua 171.573,64 eurokoa da %21eko BEZa barne, horietatik 141.796,40 euro printzipalari dagozkionak eta 29.777,24 euro BEZari dagozkionak.

<u>HIRUGARRENA</u>.- Obraren kontratazio-espedientea izapidetzen hasi aurretik, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak egiaztatu beharko dira.

<u>LAUGARRENA</u>.- Erabaki horiek Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari, Hirigintza Sailari, Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondare Azpisailari eta Tolosa Lantzen, S.A. sozietateari jakinaraztea.

6. <u>TOLOSAKO UDALEKO BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ZERBITZU INSTRUKZIOAREN AKATS ZUZENKETA</u>.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

Tokiko Gobernu batzarrak, bi mila eta hogeiko otsailaren 11an egindako batzarrean onartu zituen 2020ko egutegiak eta udalaren barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioetako eranskinean bi puntu oker daude.

Hori horrela, Antolakuntzako zinegotziaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaleko barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioaren akats zuzenketa. Honela:

I Eranskineko 6.4 puntuan

Hauxe dioen lekuan:

> 6.4,- Ohiko ordutegitik kanpo egindako orduek ─aparteko ordu gisa kontsideratzen ez direnak (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...)─ ordu bakoitzeko **ordu eta erdiko** konpentsazioa izango dute

Honakoa esan behar du:

> 6.4,- Ohiko ordutegitik kanpo egindako orduek ─aparteko ordu gisa kontsideratzen ez direnak (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...)─ ordu bakoitzeko **bi orduko** konpentsazioa izango dute

II Eranskineko xedapen iragankorrean.
Hauxe dioen lekuan:

> **Xedapen iragankorra:** Harik eta Udalbatzak martxan dagoen lanpostuen balorazioa onartu arte, aparteko ordu kontsideratu ez, baina ohiko edo adostutako ordutegitik kanpo egindako orduek (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...) ordu bakoitzeko **ordu eta erdiko** konpentsazioa izango dute

Honakoa esan behar du:

> **Xedapen iragankorra:** Harik eta Udalbatzak martxan dagoen lanpostuen balorazioa onartu arte, aparteko ordu kontsideratu ez, baina ohiko edo adostutako ordutegitik kanpo egindako orduek (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...) ordu bakoitzeko **2 orduko** konpentsazioa izango dute,

BIGARRENA.- Erabaki hau langileen ordezkariei eta udaleko langile guztiei jakinaraztea eta baita Gizabaliabidetako departamentuari ere.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO
UDALA

7. <u>DEKRETU HONEN BERRI EMATEA</u>: <u>2020/0525 DEKRETUA: 2019/74; 2020/04 ETA 2020/05 FAKTURA ZERRENDAK.</u>

Idazkariak 2020/0525 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

Zk.: 2020/0525

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko eta 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

2019-74. zenbakia duena, 262.013,99 eurokoa

2020-4. zenbakia duena, 484 eurokoa

2020-5 . zenbakia duena, 88.771,64 eurokoa

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LENEHIK.- *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

2019-74. zenbakia duena, 262.013,99 eurokoa

2020-4. zenbakia duena, 484 eurokoa

2020-5. zenbaki duena, 88.771,64 eurokoa

BIGARREN.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Tolosan, 2020ko martxoaren 13an

Zinegotzi Delegatuak — *Nire aurrean, Jarduneko Idazkaria*

Begoña Tolosa Mendia — *Karmele Contreras Goikoetxea*

8. <u>DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO OTSAILAREN 21ETIK 27RA (2020/388-2020/411)</u>.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO UDALA

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko otsailaren 21etik 27ra bitartean (DK 2020/388-2020/411) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
388	2020	21/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	2019KO 71.FAKTUREN ZERRENDA ONARTU ETA BERTAKOEN ORDAINKETA AGINTZEA
389	2020	21/02/2020	ENPLEGUA	ENPLEGU PLANAREN 2. ORDAINKETA
390	2020	21/02/2020	ENPLEGUA	KONTSUMITZAILEEN BULEGOKO HITZARMENA SINATZEA
391	2020	21/02/2020	HIRIGINTZA	LEHIBERRI ZENTROKO ESTALKIAREN IRAGAZGAIZTEAREN ZATI BAT ORDEZKATZEKO LIZENTZIA EMATEA
392	2020	21/02/2020	PERTSONALA	URTARRILEKO GIZARTE SEGURANTZAREN KOSTUA ONARTZEN
393	2020	21/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK. FAMILIA UGARIEN HOBARIA. ESKAERA EZ ONARTZEA.
394	2020	21/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK. FAMILIA UGARIEN HOBARIA. EZ ONARTZEA.
395	2020	21/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK. FAMILIA UGARIEN HOBARIA. EZ ONARTZEA.
396	2020	21/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK. FAMILIA UGARIEN HOBARIA. EZ ONARTZEA.
397	2020	21/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK. FAMILIA UGARIEN HOBARIA. EZ ONARTZEA.
398	2020	27/02/2020	IDAZKARITZA	TOLOSALDEKO BERDINTASUN POLITIKAK ETA EMAKUMEEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA BULTZATZEKO GUNEAREN EXEKUZIO ETA JARDUERA PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192

TOLOSAKO UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
399	2020	27/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUEN ASEGURUA 2020
400	2020	27/02/2020	HIRIGINTZA	LURGINTZA INGENIERIA GEOLOGIKOA SL
401	2020	27/02/2020	AZOKAK	GIPUZKOAKO POTTOKAZALEEN ELKARTEARI BAIMENA EMATEA MARTXOAREN 8RAKO
402	2020	27/02/2020	PERTSONALA	G.U.V. (KONTRATAZIOKO ADMINISTRARI BERRIA)
403	2020	27/02/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 48 ALBOKO FATXADAREN KONPONKETAKO LANAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
404	2020	27/02/2020	HIRIGINTZA	ARAUDI SLPREN AURREKONTUA ONARTU. HIRIGINTZA SAILEKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA
405	2020	27/02/2020	PERTSONALA	G.U.E. (HIRIGINTZAKO ADMINISTRARI BERRIA)
406	2020	27/02/2020	HIRIGINTZA	IGERALDE KALEA 6-6 ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO LIZENTZIA BARNE-BANAKETAREKIN
407	2020	27/02/2020	HIRIGINTZA	ELKANO 3 EIT-AREN ONDORIOZ SORTUTAKO ZENBAIT KONPONKETAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
408	2020	27/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK - HIBRIDOA - HOBARIA EZ ONARTZEA
409	2020	27/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK - HISTORIKOAK - HOBARIA EZ ONARTZEA
410	2020	27/02/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUAK - HISTORIKOAK - HOBARIA EZ ONARTZEA
411	2020	27/02/2020	PERTSONALA	OTSAILEKO NOMINAREN ORDAINKETA

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 13:35ean.

ALKATEA **JARDUNEKO IDAZKARIA**

Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ESKU21c0af6c-9188-449a-b41a-9c203f906192**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Titulo:	2020IGBA0010-Akta/Acta

Sinatzailea 1/Firmante 1: MARIA CARMEN CONTRERAS GOICOECHEA
Data/Fecha: 2020/05/07 14:48:21

Sinatzailea 2/Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)
Data/Fecha: 2020/05/08 08:47:43